**UDALBATZAK 2018KO APIRILAREN 24AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko apirilaren 24ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***<u>Orereta/Errenteriako EHBildu</u>***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA
- Eñaut GRACIA IBARRA

***<u>Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos</u>***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Iñaki RUIZ ALONSO

***<u>Errenteria IrabaziZ</u>***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 24 DE ABRIL DE 2018**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 24 de abril del año dos mil dieciocho, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***<u>Orereta/Errenteriako EHBildu</u>***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA
- Eñaut GRACIA IBARRA

***<u>Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco</u>***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE (Se hace constar que se incorpora a la Sesión en el punto 7º del Orden del Día)
- Iñaki RUIZ ALONSO

***<u>Errenteria IrabaziZ</u>***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ (Se hace constar que se incorpora a la Sesión en el punto 4º del Orden del Día)
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Era berean, bertan dago Mª José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Mª José SANCHEZ PLAZA.

----------

----------

**1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 756 zk.tik 1014 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

**1. Dar cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 756 al 1014 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**2. Kontuhartzailetzako txostenak.**

**2. Informes de Intervención**

Ondokoak jakinarazi dira:

Se da cuenta de los siguientes:

- Finantza eta Aurrekontuen arloko informazioa: 2018ko 1 hiruhilabetea

- Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko Txostena: Kreditu gaikuntza 2018KALD00002-00

- Información Financiera y Presupuestaria: 1º Trimestre 2018

- Informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera: Habilitación de Crédito 2018KALD00002-00

**3. Berri ematea: 2017ko Aurrekontuaren likidazioa: Udala, Errenteria Musikal Patronatua, Jesusen Bihotza adinekoen egoitza Patronatua eta Aurrekontu Kontsolidatua.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Proposamena: 2018-KALD00003-00 kreditu gehigarrien kreditu aldaketa espedientea onartzea**

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, udal honen aurrekontuari eragiten diona.

Ikusita Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

2018ko apirilaren 18an, Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Hauek mintzatu dira:

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du jakina dela aurrekontuak marko jakin batean onartu zirela, Lekuona proiektua izanik erronka nagusi. Gaztelaniaz jarraitu du esanez guztiek dakitela 2018ko aurrekontuen prestaketa baldintzatzen zutela Lekuona fabrikaren proiektuak, erakundearteko akordioak, gaurkotasunak eta Udalaren proiektu berriaren errealitateak. Proiektua

**3. Dar cuenta: Liquidación Presupuesto 2017: Ayuntamiento, Patronato Errenteria Musikal, Patronato Residencia de Ancianos Sagrado Corazón y Presupuesto consolidado**

El Pleno queda enterado.

**4. Propuesta: aprobación del expediente de modificación de créditos 2018-KALD00003-00, créditos adicionales.**

Visto el expediente de modificación de créditos, en la modalidad de créditos adicionales, que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento

Visto el informe emitido por la Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto que en fecha 18 de abril de 2018, a propuesta del Concejal Delegado de Hacienda y Desarrollo Económico, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Se producen las siguientes intervenciones:

*Interviene en euskera el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que los presupuestos se aprobaron en un marco concreto, teniendo como eje principal el proyecto Lekuona. Continúa en castellano manifestando que por parte de todos y todas es conocido que la realización del presupuesto del 2018 estaba condicionada al proyecto de la fábrica Lekuona, al mutuo acuerdo interinstitucional, a la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

argia eta estrategikoa da, herriaren aldaketa sozioekonomikoaren aldaketa markatu du, lehen epe luzerako etorkizuna zena eta orain errealitate dena. Marko orokorraren jakitun izanik, egoera ekonomiko saneatua izateari esker burutu ahal izango dira aurrekontuetan aurreikusi ez ziren jarduketak eta horrela legegintzaldi-plana bete. Plan hori 2025 Plan Estrategikoaren baitan sortu zen. Altxortegiko gerakinari esker egingo diren inbertsioak arlo eta mota desberdinetakoak izango dira: arazoak konponduko dituzte, zerbitzu publikoak hobetu, ingurumenaren ingurukoak izango dira edo herrian Don Boscorekin eta Oarsoaldearekin gazteak lan-munduan txertatzen laguntzeko inbertsioak egingo dira Errenterialanek Europako Gizarte Funtsaren gazteen enplegurako programa operatiboaren babesarekin duen proiektuari esker. Azpimarratu behar da Fanderiako errotaren interpretazio zentroa ere; proiektu horren bigarren fasea burutuko eta zentroa laster zabalduko da; Pontikako Barandiaran parkearen azpiko aparkalekuaren proiektua eta obra-zuzendaritza idaztea. Inbertsio horiek hobekuntzak ekarriko dituzte Fanderia, Beraun edo Galtzarabordako kirol-instalazioetan. Beraungo kultura-etxea edo emakumeen etxea bezalako proiektuek behin betiko bultzada izango dute ekarpen hauekin. Argi dago oso garrantzitsua dela erantzutea herritarrek bizi-kalitatearen eta irisgarritasunaren, auzoetako beharren eta hiri-mantenuaren inguruan egiten dituzten eskaerei, eta ZU herritarren arretarako zerbitzua indartzearen aldeko apustua mantentzen jarraitzea.

* Txasko jaunak (*Orereta/Errenteriako EHBildu*) euskaraz adierazi du bere gobernukideak aurreratu duela jada, azaldu duela gutxi gorabehera gerakinarekin zer proiekturi egingo zaien aurre. Gerakina dator hain justu ere aurreko puntutik,

actualidad y a la realidad del nuevo proyecto municipal. Un proyecto claro y estratégico como se ha marcado en el cambio socio económico del devenir del municipio antes a largo plazo pero en la actual realidad. Siendo conscientes del marco global y gracias a una situación económica saneada se podrán llevar a cabo actuaciones no previstas en los presupuestos y de este modo poder dar cumplimiento al plan de legislatura. Plan que nace en el Plan Estratégico 2025. Las inversiones que se realizaran gracias a remanente de tesorería abarcarán proyectos de diferente área e índole, aportando soluciones, mejorando servicios públicos, medio ambiente o entre otros impulsando la inversión al mundo laboral de la juventud en el municipio de la mano de Don Bosco y Oarsoaldea gracias al proyecto Errenterialan que tiene el apoyo del Fondo Social Europeo del programa operativo de empleo juvenil. Destacar también el centro de interpretación en el molino de Fandería, un proyecto que se abordará en su segunda fase pudiendo abrir el centro próximamente o la redacción del proyecto y dirección de la obra de aparcamiento soterrado del parque de Barandiaran en Pontika. Estas inversiones traerán mejoras en instalaciones deportivas tanto en Fanderia como en Beraun o Galtzaraborda. Proyectos como la casa de cultura de Beraun o la casa de las mujeres tendrá el impulso definitivo con estas aportaciones. Evidentemente y de suma importancia atender las demandas vecinales sobre la calidad de vida y accesibilidad, los barrios, el mantenimiento urbano y manteniendo la apuesta por fortalecer el servicio de atención ciudadana ZU.

*Interviene en euskera el Sr. Txasko (*Orereta/Errenteriako EHBildu)* manifestando que su compañero de gobierno ya lo ha adelantado, ha explicado a grandes rasgos a qué proyectos se va a hacer frente con el dinero del remanente. Y es que el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

likidaziotik, aurten ere emaitza ona izan da, finantzak oso saneatuta daude, eta horrek aukera ematen digu hainbat apustu egiteko. Legegintzaldi-planean eta 2025 Plan Estrategikoan jasotako konpromisoak dira. Zerrenda osoa hor dute, eta batzuk aipatzekotan, asmoa zuten Askatasunaren Martirien kalean aparkaleku bat egiteko, eta atzeratu egin dute, obra batzuk egiten ari direlako. Asmoa da jarraitzea egiten, baina itxaroten duten bitartean ─erdi hitz eginda zuten eta ados daude─ Barandiaran parkearekin jarraituko dute, Pontikan, eta horregatik sartu dituzte 200.000 €. Eta gai hori garrantzitsua da, aparkatzearen kontua garrantzitsua delako herri honetan; auzo-elkartearekin hitz egin dute eta batzar batean ere planteatu zen hor egongo den parke horren azpian aparkaleku bat eraikitzeko aukera. Eta gainerako gauzen artean, gehienak esan dira: komun publikoen sarea, Fanderiako errotako interpretazio-zentroa, etab. Kirol-arloan hainbat behar daude, batez ere eraikinen mantenuari dagozkionak, zehazki, Fanderian, klimatizagailua aurrera eramateko 239.000 € jarriko dituzte; halaber, Fanderiako frontoian azken urteetan arazoak izan dira hezetasunarekin, partida horri 75.000 € gehituko dizkiote. Eta beste bi partida garrantzitsu daude: Galtzarabordako kiroldegian, alde batetik, goiko luzeroak denborarekin hondatzen ari dira eta guztiak aldatuko dituzte, horretarako 87.000 € jarri ditugu. Baita ere, behar handia dagoenez, proiektu bat egingo dute eta 80.000 € jarriko dituzte Galtzarabordako kiroldegia zabaltzeko, beste pista bat eginda. Eta hori da, gutxi gorabehera, esan beharrekoa.

remanente procede exactamente del punto anterior de la liquidación; el resultado de este año ha sido bueno, las finanzas están saneadas y eso nos brinda la posibilidad de hacer nuestra apuesta en relación a los compromisos recogidos en el Plan de Legislatura y en el Plan Estratégico 2025. Disponen de toda la lista, pero por resaltar alguno, menciona la intención de construir un parking en Mártires de la Libertad, aunque se haya pospuesto a consecuencia de que se están realizando unas obras. La intención es continuar con ella, pero mientras esperan ─lo tenían medio hablado y están de acuerdo─ seguirán con el parque Barandiarán, en Pontika, y por eso han introducido 200.000 €. Y ese es un tema importante, ya que el tema del aparcamiento es importante en nuestro municipio, y eso es lo que han hablado con la asociación de vecinos y vecinas e incluso en una asamblea de barrio se planteó la construcción de un parking debajo de ese parque. Y del resto de cosas, la mayoría ya se han mencionado: la red de baños públicos, el centro de interpretación del molino de Fanderia, etc. En lo que al deporte se refiere, sobre todo en relación al mantenimiento de edificios, se han dispuesto 239.000 € para el climatizador de Fandería; asimismo, dado que en los últimos años en el frontón de Fandería ha habido problemas de humedad, han añadido 75.000 € a esa partida. Y otras dos partidas importantes: en el polideportivo de Galtzaraborda, por un lado, los luceros superiores con el tiempo se están deteriorando y se van a sustituir todas, para lo que se han dispuesto 87.000 €. Asimismo, dado que es muy necesario, han preparado un proyecto y dispondrán 80.000 € para ampliar el polideportivo de Galtzaraborda. Y eso es más o menos lo que cabría comentar.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (O.E

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

EHBILDU, Errenteria IrabaziZ), aurkako 6 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) eta 3 abstentziorekin ( EAJ/PNV),

favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ), 6 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Lehenengoa**.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarriak modalitatean, proposamenean ageri den xehetasunarekin.

**Primero**.- Aprobar el expediente de modificación de créditos, modalidad creditos adicionales, que se relaciona en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al presupuesto de este Ayuntamiento.

**KREDITU GEHIGARRIAK – CREDITOS ADICIONALES**

| **Kapituluak**<br>**Capitulos** | **Izena - Denominación** | **Gehikuntzak**<br>**Aumentos** |
|---|---|---|
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK – TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 23.630,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK – INVERSIONES REALES | 1.262.190,75 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA**<br>**TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES** | | **1.285.820,75** |



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

## FINANTZAKETA - FINANCIACIÓN

| Kapituluak Capitulos | Izena - Denominación | Zenbatekoa Importe |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) (INGRESOS) | FINANTZA AKTIBOAK – ACTIVOS FINANCIEROS | 1.285.820,75 |
| **GUZTIRA - TOTAL** | | **1.285.820,75** |

**Bigarrena**.- Espedientea jende aurrean jarri hamabost laneguneko epean, behin iragarkia GAOn eta udal web orrian argitaratuta. Espedientea behin betiko onartuta geratuko da baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren ez bada erreklamaziorik aurkezten.

**Segundo**.- Exponer el expediente al público por plazo de quince días hábiles tras publicar el correspondiente anuncio en el BOG y web municipal. El expediente quedará definitivamente aprobado, si transcurrido el plazo de quince días hábiles de exposición al público, no se hubiese presentado reclamación alguna.

**Hirugarrena**.- Behin betirako onartuta geratuko den espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea.

**Tercero**.- Remitir copia del expediente definitivamente aprobado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**5. Behin betiko onespena ematea 14/16 EU: Pablo Iglesias etorbidea, 15 zk. R. Mª Azkue, 16 zk. Unitatearen 1 BU Burutzapen Unitatearen Hiri antolamendurako Plan Bereziari.**

**5. Aprobación definitiva del Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE 1 de la U.I. 14/16: Avda. Pablo Iglesias nº 15-c/ R.Mª Azkue, 16.**

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak honako helburua xedatzen du 14/16 EU etenerako (Pablo Iglesias,15 R.M.kalea, 16): Pablo Iglesias etorbidean gaur egun

El Plan General de Ordenación Urbana, establece como objetivo para el ámbito, discontínuo, de la U.E. 1 de la U.I. 14/16: Avda. Pablo Iglesias nº 15 – C/



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dagoen eraikina ezabatzea, eta eremu hori birkalifikatu egiten da dotazio erabilerarako. Era berean, Resurrección Mª Azkue kalea 16 zenbakiari dagokion eremua birkalifikatu egiten da bizitoki erabilerarako.

R.Mª Azkue nº 16, la supresión del actual edificio existente en la Avda. Pablo Iglesias, con la recalificación de ese ámbito para uso dotacional. Simultáneamente, se recalifica el ámbito de la C/ Resurrección Mª de Azkue nº 16 como uso residencial.

Honako Plan Berezi honek, eremu horretako lurjabekideek sustatuak, bere helburutzat du egunean dagoen plan orokorrak eremu horretarako xedatzen dituen eraikitzeko irizpide eta helburuak garatzea eta baita eremu horretarako egungo plan orokorrak xedatzen dituen dotazioak eta aparkalekuak gauzatzeko.

El presente Plan Especial, promovido por los propietarios del ámbito, tiene por objeto desarrollar los criterios y objetivos edificatorios, de resolución de dotaciones y aparcamientos del ámbito establecidos en el planeamiento general vigente para este ámbito.

Zehazki bizikoti erabilerarako 1.544 m2 (s) gehienez, eraikin bakar batean garatuko direnak eta sustapen libreko 18 etxebizitza egiteko direnak.

En concreto, se destinan para usos residenciales un máximo de 1.566 m2 (t), a desarrollar en un único bloque destinados a la construcción de 20 viviendas de promoción libre.

Zuzkidura erabilera duen partzela bat aurrieikusia dago, komunitate ekipamendurako 391,58 m2. (s)takoa.

Se prevé una parcela de uso dotacional para equipamiento comunitario de 391,58 m2 (t).

**Aurrerakinak.-**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko abenduaren 19an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion ***14/16 EU: Pablo Iglesias etorbidea, 15 zk. R.Mª Azkue, 16 zk. Unitatearen 1 BU Burutzapen Unitatearen Hiri antolamendurako Plan Bereziari***, Celso Fuciños Taboada arkitektoak 2017ko irailean idatzitako dokumentuaren eta 2017ko abenduan idatzitako I. Eranskinaren arabera.

Erabaki horren iragarkia "El Diario Vasco" egunkarian argitaratu zen 2017ko abenduaren 29an, baita 2018ko urtarrilaren 8ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialeko 5 zenbakian ere.

**Antecedentes.-**

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada con fecha 19 de diciembre de 2017, acordó aprobar inicialmente el expediente relativo al ***Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE 1 de la U.I. 14/16: Avda. Pablo Iglesias n.º 15-C/ R.Mª Azkue, 16,*** según documento redactado en septiembre de 2017, así como Anexo I de diciembre de 2017, por el arquitecto Celso Fuciños Taboada.

El anuncio del referido acuerdo fue publicado en el periódico "El Diario Vasco" de fecha 29 de diciembre de 2017, así como en el Boletín Oficial del Territorio Histórico nº 5 de 8 de enero de 2018.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2018ko urtarrilaren 9tik otsailaren 5era bitarteko jendaurreko 20 EGUNEKO epean (biak barne), hurrengo alegazioa aurkeztu da:

Durante el período de exposición pública, de 20 DIAS, comprendido entre el 9 de enero y el 5 de febrero de 2018 (ambos inclusive), se ha presentado la siguiente alegación:

| Data / Fecha | Izena / Nombre |
|---|---|
| 2018/02/01 | CONSTRUCCIONES MICHELENA Y LECUONA SUCESORES, S.L. |

Alegazioan bi gai hauei egiten zaie aipamen:

1.- Mugakidea den eraikineko sotorako sarbidearen eta hori aldi baterako ixtearen inguruan dagoen zehaztasun falta,

2.- Jabari pribatua eta erabilera publikoa duen 7,05 m²-ko azalera txikiaren inguruan dagoen zehaztasun falta.

En la alegación presentada se hace referencia a dos cuestiones:

1.- La falta de concreción sobre las servidumbres, acceso al sótano de la edificación colindante y su cierre temporal.

2.- La falta de concreción sobre la pequeña superficie de 7,05 m² de dominio privado y uso público.

Era berean, 2017ko abenduaren 28an URA Ur Agentziari bidali zitzaion hasierako onespena, nahitaezko txostena egiteko eskatuz.

Igualmente, con fecha 28 de diciembre de 2017, se dio traslado del acuerdo de aprobación inicial a URA, al objeto de solicitar el preceptivo informe.

2018ko martxoaren 26an, Agencia Vasca del Agua – Ur Agentziak gai horren aldeko txostena bidali du (5071 erreg. zk.), betiere, ondorengo zehaztapen loteslea betetzearen baldintzapean:

- Pablo Iglesias etorbidearen eremuan, proposatu den zuzkidura erabilerarako proiektua aurrera eramateko, nahitaezko obra-baimena eskatu behar da aurretik URA – Ur Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulego honetan (Gipuzkoa).

Con fecha 26 de marzo de 2018, n.º de registro 5071, la Agencia Vasca del Agua -Ur Agentzia, ha remitido informe favorable al respecto, condicionado a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación vinculante:

- Para poder desarrollar el proyecto propuesto en el ámbito de la Avda. Pablo Iglesias de uso dotacional se debe solicitar la preceptiva autorización de obras en esta Oficina de las cuencas Cantábricas orientales (Gipuzkoa) de la Agencia Vasca del Agua-URA.

2018ko apirilaren 11n, Ramon Ruiz de Mendoza udal arkitektoak eta Vicente Castiella udal aholkulari

Con fecha 11 de abril de 2018, el arquitecto municipal Ramón Ruiz de Mendoza y el Asesor

juridikoak txostena eman dute, dokumentuari behin betiko onespena ematearen aldekoa. Era berean, eta alegazioari erantzuteko, adierazi behar da ezetsi egiten dela alegazioa, txosten horretan azaldutako arrazoiei jarraiki.

Jurídico municipal Vicente Castiella emiten informe favorable a la aprobación definitiva del documento, y en contestación a la alegación presentada hay que señalar que la misma se desestima por los motivos señalados en el mencionado informe.

2018ko apirilaren 17an, Hirigintzako Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Visto que en fecha 17 de abril de 2018, a propuesta del Delegado de Urbanismo, la Comisión Informativa de Territorio dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 20 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 20 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- **Onartzea eta ezestea**, 2018ko otsailaren 1ean, CONSTRUCCIONES MICHELENA Y LECUONA SUCESORES S.L. enpresak aurkeztutako alegazioa; 2018ko apirilaren 11n, Ramon Ruiz de Mendoza udal arkitektoak eta Vicente Castiella udal aholkulari juridikoak emandako txostenean azaldutako arrazoiengatik

1º.- **Admitir y desestimar** la alegación presentada el 1 de Febrero de 2018, por CONSTRUCCIONES MICHELENA Y LECUONA SUCESORES S.L, por las razones expuestas en el informe de 11 de abril de 2018, redactado por el arquitecto municipal Ramón Ruiz de Mendoza y el Asesor Jurídico municipal Vicente Castiella.

2º.- **Behin betiko onespena ematea *14/16 EU: Pablo iglesias etorbidea, 15 zk. R.Mª Azkue, 16 zk. Unitatearen 1 BU Burutzapen Unitatearen Hiri antolamendurako Plan Bereziari*,** Celso Fuciños Taboada arkitektoak 2017ko irailean idatzitako dokumentuaren eta 2017ko abenduan idatzitako I. Eranskinaren arabera.

2º.- **Aprobar definitivamente**, el ***Plan Especial de Ordenación Urbana de la UE 1 de la U.I. 14/16: Avda. Pablo Iglesias n.º 15-C/ R.Mª Azkue, 16,*** según documento redactado en septiembre de 2017, así como Anexo I de diciembre de 2017, por el arquitecto Celso Fuciños Taboada, con el siguiente condicionante:

- Pablo Iglesias etorbidearen eremuan, proposatu den zuzkidura erabilerarako proiektua aurrera eramateko, nahitaezko obra-baimena eskatu behar da aurretik URA – Ur Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulego honetan (Gipuzkoa).

- Para poder desarrollar el proyecto propuesto en el ámbito de la Avda. Pablo Iglesias de uso dotacional se debe solicitar la preceptiva autorización de obras en esta Oficina de las cuencas Cantábricas orientales (Gipuzkoa) de la Agencia Vasca del Agua-



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Xedapen hori jasota dago 2018ko martxoaren 26an, Agencia Vasca del Agua – Ur Agentziak bidalitako txostenean.

URA, determinación recogida por el informe remitido el 26 de marzo de 2018 por la Agencia Vasca del Agua -Ur Agentzia.

3º- **Bidaltzea, argitaratu aurretik,** plan bereziaren ale bat (ohiko moduan eta euskarri magnetikoan) Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark Erregistroko depositoan gorde dezan.

3º.- **Remitir, con carácter previo a su publicación,** un ejemplar del presente plan especial (en soporte magnético y convencional) a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro.

4º- **Argitaratzea** akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, akordio hau probintzian gehien saltzen den egunkari batean argitara emango da.

4º.- **Publicar** el contenido íntegro del presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, junto con la normativa del plan. Igualmente, se publicará el presente acuerdo en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia.

5º.- **Jakinaraztea** erabaki hau interesatuei eta Udal errenta Departamentuari.

5º.- **Comunicar** el presente acuerdo a los interesados así como al Departamento de Rentas y Exacciones.

**6. Hasierako onarpena ematea TAOko kudeaketari buruzko Trafiko Ordenantza Orokorraren aldaketari.**

**6. Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza General de Tráfico en lo relativo a la OTA.**

2006ko ekainaren 7ko, 107 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalak egin beharrekoak egin ondoren, argitaratu zen egun indarrean dagoen Trafiko Ordenantza Orokorra.

Con fecha 7 de junio de 2006 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 107, tras su tramitación municipal, la vigente Ordenanza General de Tráfico.

Udalak bere gain hartu du TAO zerbitzu publikoaren kudeaketa, eta jarraipena tresna telematikoen bidez egingo denez, araudiaren aldaketa beharrezkoa da sistema berri honetara egokitzeko.

El Ayuntamiento ha asumido la gestión del servicio público OTA que se realizará por medios telemáticos, lo cual lleva a la necesidad de adaptar la normativa a este nuevo sistema.

Trafiko Ordenantza Orokorra, TAO-ari dagokon atalean aldaketa egitasmoa prestatu da eta hori

Se ha realizado un proyecto de modificación de la Ordenanza General de Tráfico en lo relacionado con

aurrera eramateko lehedabizi kontsulta publikoa egin da iragarkia argitaratuz 2018ko otsailaren 14tik 28ra.

la OTA, habiéndose realizado una consulta pública y exposición del anuncio del proyecto de modificación desde el 14 al 28 de febrero de 2018

Ireki da ere herritarrei audientzia aldia udal web orrian iragarkia eta aldaketa proposamena argitaratuz 2018ko martxoaren 2tik 15era.

Se ha procedido a la apertura de un plazo de audiencia a la ciudadanía con publicación de anuncio y propuesta de modificación en la página web municipal desde el 2 al 15 de marzo de 2018.

Udaltzaingoko Ofizialburuak txostena egin du 2018ko apirilaren 10eko datarekin.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha realizado informe al respecto con fecha 10 de abril de 2018.

Udal Aholkulari Juridikoak ere txostena egin du 2018ko martxoaren 1eko datarekin.

El Asesor Jurídico municipal ha emitido informe con fecha 1 de marzo de 2018.

**Zuzenbide oinarriak.-**

**Legislación aplicable.-**

Aplikagarria den legedia ondorengoetan dago jasota: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1, 25.2.g, 47.1 eta 49, artikuluak; Toki Araubidearen gaietan indarrean dauden Xedapenen Testu Bateginaren 55 eta 56 art.

Considerando lo establecido en los Artículos 4.1, 25.2. g, 47.1 y 49, de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, Artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones vigentes en materia de Régimen Local.

2018ko apirilaren 17an, Trafiko eta Garraio Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Visto que en fecha 17 de abril de 2018, a propuesta del Delegado de Trafico y Transporte, la Comisión Informativa de Territorio dictamina favorablemente el presente asunto.

Hauek mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Txasko jaunak *(Orereta/Errenteriako EHBildu)* euskaraz adierazi du egokitzapen terminologiko bat egin dela, lehen 15 minutuak dohainik izango direla zehazteko.

*Interviene en euskera el Sr. Txasko (*Orereta/Errenteriako EHBildu)* manifestando que se ha realizado una adaptación terminológica, para especificar que los primeros 15 minutos serán gratuitos.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

(Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) eta 9 abstentziorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

**E R A B A K I D U**

1º.- **Hasierako onespena ematea**, ***TRAFIKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA*** egitasmoari, eranskin gisa espedientean jasota dagoena.

2º.- Jendeak erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko espedientea **jendaurrean jartzea** 30 egunez, horretarako iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen den egunkari batean eta Udaleko web orrian eta iragarki-oholean argitara emango direlarik. Norbaitek egingo balitu, Udalbatzak erabakiko lituzke, eta inork ez balu egingo, berriz, aldaketa behin-betiko onartutzat joko litzateke.

**7. Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunean aurreikusitako neurriak garatzeko aurrekontuaren inguruan, Espainiako Gobernuak hartu duen konpromisoari buruzkoa.**

Ondoko mozioa irakurri da:

Emakumeen gaineko indarkeriaren aurka borrokatzeak lehentasuna izan behar du gizarte guztiarentzat eta betebeharra alderdi politikoentzat, eta, batez ere, gobernuentzat eta administrazioentzat, beren eskumenen baitan.

Diputatuen Kongresuak onartutako Genero

favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ) y 9 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV)

**A C U E R D A**

1º.- **Aprobar inicialmente** el *Proyecto de MODIFICACION ORDENANZA DE TRAFICO en lo referido a la OTA,* que se adjunta como anexo al expediente.

2º.- Exponerla a información pública por el plazo de 30 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los periódicos de mayor circulación del territorio, la página web y el Tablón de Anuncios Municipal, a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la Corporación. De no producirse, la Modificación se considerará definitivamente aprobada.

**7. Moción presentada por el Grupo Socialista relativa al presupuesto comprometido por el Gobierno de España para desarrollo de las medidas contempladas en el Pacto de Estado contra la violencia de genero.**

Leída la siguiente Moción:

La lucha contra la violencia que se ejerce hacia las mujeres ha de ser una prioridad para toda la sociedad y también una obligación que corresponde a los partidos políticos y en primera instancia a los gobiernos y administraciones en el marco de sus correspondientes competencias.

El Pacto de Estado en materia de Violencia de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Indarkeriaren inguruko Estatu Itunak zuzenean lotzen ditu alderdi politikoak, Estatuaren boteréak, autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazioak genero-indarkeria desagerrarazten laguntzeko hartutako konpromisoarekin.

Género aprobado por el Congreso de los Diputados vincula directamente a los partidos políticos, poderes del Estado, Administraciones Autonómicas y locales, en el compromiso adoptado para contribuir a la erradicación de la violencia de género.

Estatu Ituna gure egungo legeriaren tresna osagarria da ezartzen dituena adostutako neurriak garatzeko beharrezko erakunde-koordinazioko markoak. Guztira biltzen ditu 213 jarduera-proposamen arazoa osotasunean jorratzeko eta guztiekin genero-indarkeria jasaten duten emakumeen eta horien seme-alaben egoera hobetze

El Pacto de Estado, es un instrumento complementario de nuestra actual legislación, que establece los marcos de coordinación institucional precisos para el desarrollo de las diferentes medidas acordadas. Un total de 213 propuestas de actuación que abordan el problema de manera integral y que en su conjunto mejoran la situación de las mujeres víctimas de violencia de género y la de sus hijas e hijos.

Baina ezingo dugu indarkeria matxista desagerrarazteko bidean eta emakumeentzako berariazko arretan aurrera egin ez badira ezartzen gai honetan erantzukizuna duten administrazio eta erakundeen arteko koordinaziorako tresnak, eta ezingo dugu aurrera egiten jarraitu administrazioek (autonomia-erkidegoak eta udalak) ez badituzte baliabide ekonomiko egokiak eskuartean.

Pero no se podrá avanzar en la erradicación de la violencia machista y en la atención específica a las mujeres, si no se establecen estos mecanismos de coordinación necesarios entre las diferentes administraciones e instituciones con responsabilidad en la materia, y tampoco se podrá seguir avanzando si no se dotan a las distintas Administraciones (Comunidades Autónomas y Ayuntamientos), de los recursos económicos adecuados.

Administrazio autonomikoen eskuduntza eta eskumenei dagokienez, azpimarratu behar da itunean jasotakoa, alegia, bertan adierazitakoa interpretatuko dela autonomia-erkidegoek beren autonomia-estatutuen arabera esleituta dituzten eskumenak baliatzearen kalterik gabe, eta ondorioz, autonomia-erkidegoak edo beste administrazio publiko batzuk ezin izango dira lotu txosten honetan adierazitako gomendioekin beren eskumen-esparruari eragiten dietenean.

Hay que resaltar con respecto a las atribuciones y competencias de las Administraciones Autonómicas, lo recogido en el Pacto: “Lo dispuesto en el presente Pacto deberá ser interpretado sin perjuicio del pleno ejercicio por las Comunidades Autónomas de las competencias que tienen atribuidas en virtud de los respectivos Estatutos de Autonomía, no pudiendo, en consecuencia, vincular a las Comunidades Autónomas u otras Administraciones Públicas, las recomendaciones contenidas en el presente informe cuando afecten a sus respectivos ámbitos competenciales.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Gai hori funtsezkoa da, aitortzen baitu autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioek beren eskumen espezifikoen baitan genero-indarkeriaren aurkako borrokan egiten duten ahalegina eta hartzen duten konpromiso ekonomikoa.

Este aspecto es fundamental, al reconocer el esfuerzo y el compromiso económico de las Administraciones Autonómicas y Locales en el marco de sus competencias específicas, dedicado a la lucha contra la violencia de género.

Horregatik, eta Itunean ezarritako neurrien arabera, administrazio horiek partida ekonomiko espezifikoak izan beharko dituzte Itunean adierazitakoari jarraiki, Gobernuak berak konprometituta.

Por ello, y en función de las medidas establecidas en el Pacto, se debe dotar a dichas Administraciones de las partidas económicas específicas correspondientes fijadas en el Pacto, y comprometidas por el propio Gobierno.

Akordio horien arabera, gogoratu behar da parlamentuko talde guztiek babestu zutela talde sozialistak 2017ko urrian aurkeztutako Legez besteko proposamena eta alde bozkatu zutela. Proposamen horretan eskatzen zitzaion Espainiako Gobernuari lege-dekretu bidez onartzeko, aurrekontua luzatzen bazen, gutxienez 200 milioi gehitzea, Genero Indarkeriaren inguruko Estatu Itunean aurrekontuaren gainean hartutako erabakiak betetzeko.

En base a estos acuerdos, hay que recordar también que todos los Grupos Parlamentarios apoyaron y votaron a favor la Proposición No de Ley presentada por el Grupo Socialista en octubre de 2017, relativa a la solicitud al Gobierno de España la aprobación por Decreto Ley, en caso de prórroga presupuestaria, el incremento de al menos 200 millones, para dar cumplimiento a los acuerdos presupuestarios del Pacto de Estado en materia de Violencia de Género.

Espainiako Gobernuak ez du akordio hori bete, nahiz eta Alderdi Popularrak alde bozkatu zuen.

Acuerdo que el Gobierno de España ha incumplido, a pesar de haber sido votado a favor por el Partido Popular.

Halaber, azpimarratu eta salatu behar da Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren proposamenean berriz ere ez dela betetzen Itunean konprometitutako aurrekontu-konpromisoa.

A su vez, hay que destacar y denunciar que en la propuesta de Presupuestos Generales del Estado para 2018, se incumple de nuevo el compromiso presupuestario comprometido en el Pacto.

Horregatik, guztiagatik, Errenteriako Udaleko talde sozialistak eskatzen die gainerako taldeei erabaki hauek babesteko:

Por todo ello, desde el Grupo Socialista en el Ayuntamiento de Errenteria solicitamos a los demás Grupos Municipales, el apoyo a los siguientes

**E R A B A K I A K:**

**A C U E R D O S:**

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, autonomia-erkidego eta

1. Instar al Gobierno de España a que en los Presupuestos Generales del Estado, para las nuevas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

udalentzat gordetako eskumen berri edo zabalduetarako, transferentzia bidez bidera ditzan urtean 20 milioi euro gehiago udalentzat eta 100 milioi euro autonomia-erkidegoentzat, Itunaren erabakian adierazitakoaren arabera, ezartzen baita Estatuko Aurrekontu orokorrek bideratuko dituztela, udalei transferentzia eginda, urtean 20 milioi euro gehiago datozen bost ekitaldietan.

o ampliadas competencias reservadas a las Comunidades Autónomas y al los Ayuntamientos, se destinen, vía transferencias un incremento anual de 20 millones de euros a los Ayuntamientos y 100 millones de euros destinados a las Comunidades Autónomas, tal como figura en el acuerdo del Pacto que dice textualmente: “Los Presupuestos Generales del Estado, destinarán, vía transferencia a los Ayuntamientos, un incremento anual de 20 millones de euros durante los próximos cinco ejercicios”.

2.- Udalbatzaren erabaki honen berri ematea Espainiako gobernuko presidenteari; Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroari, eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei.

2. Dar traslado de este acuerdo Plenario al Presidente del Gobierno de España, a la Ministra de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y al conjunto de los Grupos Parlamentarios en el Congreso de los Diputados.

Hauek mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas vascos) adierazi du joan den ostiralean bi emakume erail zituztela Gasteizen; hurrengo egunean gazte bat atxilotu zuten hiri berean, bere bikotekidea erasotzeagatik. Hauek ez dira Euskadin berriki gertatutako bi kasu besterik. Alderdi Sozialistatik beste behin ere deitoratzen eta salatzen dituzte Euskadin gertatutako azken erailketa eta eraso matxistak. Azken eraso horiek ikusita, jakin nahiko lukete zenbat kasu behar diren aurrekontua jartzeko hainbat administrazio eta alderdi politikok sinatutako genero-indarkeriaren aurkako itunerako. Zeren zain dago Gobernua genero-indarkeriaren aurkako ituna ezartzeko adostutako lege-erreformak martxan jartzeko? Aurrekontu faltak ezin du koartada izan neurri horiek ez gauzatzeko; hori ez da diru falta, hori borondate politiko falta da. Espainiako Gobernuak ez du ituna betetzen emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko adostutako 200 milioietatik 80 soilik jartzen baititu, eta horrek erakusten du non

*Interviene el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que el viernes pasado fueron asesinadas dos mujeres en Vitoria-Gasteiz, un día después en la misma ciudad fue detenido un joven por agredir a su pareja. Esto sólo son dos recientes casos ocurridos de los cuales han tenido constancia en el País Vasco. Desde el Partido Socialista lamentan una vez más y condenan los últimos asesinatos y agresiones machistas ocurridos en Euskadi. Con estas últimas agresiones se preguntan cuantos casos hacen falta mas para dotar de presupuesto al pacto contra la violencia de género alcanzado entre las diferentes administraciones y partidos políticos. ¿A qué está esperando el Gobierno para impulsar las reformas legislativas acordadas para implementar el pacto contra la violencia de género?. La falta de presupuesto no puede ser la coartada para no llevar a cabo estas medidas, no es que no haya dinero, lo que no hay es voluntad política. Este incumplimiento del Gobierno



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

jartzen dituen Alderdi Popularrak bere lehentasunak. Ituna ez betetzea lotsagarria da, eta akordioa bete gabe jarraitzen badute, berriz ere damutuko dira emakumeen eta haien seme-alaben heriotzak eta erasoak gertatzen direnean haiek mahai gainean jarri gabe arazo horri aurre egiteko neurriak. Horregatik, eta itunean ezarritako neurrien arabera, administrazio horiei jarri behar zaizkie berariazko partida ekonomikoak, finkoak eta Gobernuak berak konprometituak. Espainiako Gobernuak ez du bete akordio hori, nahiz eta Alderdi Popularrak erabakiaren alde bozkatu zuen. Herritarra ez da geldi egongo egungo paralisi-egoeraren aurrean, norbaitek pentsatzen badu hau itxurakeria besterik ez dela, argazkia aterata nahikoa dela, oker dago. Sozialistek ez diote utziko itun hau betetzeko borrokari, barkaezina izango litzateke. Gizarteak itun hau behar du: “Bizirik nahi zaituztegu, beste bakar bat ere ez”. Horregatik, Errenteriako Udaleko talde sozialistak eskatzen die Udaleko gainerako taldeei, mozioko erabakiak babesteko.

de España al dotar sólo con 80 millones de euros de 200 millones de euros acordados para luchar contra la violencia hacia las mujeres demuestra donde coloca el Partido Popular sus prioridades. Este incumplimiento es una vergüenza y si sigue sin cumplirse este acuerdo lamentarán de nuevo los asesinatos y agresiones que sufren mujeres e hijos e hijas sin poner encima de la mesa las medidas necesarias para acabar con este problema, por ello, y en función de las medidas establecidas en el pacto se ha de dotar a dichas administraciones de las partidas económicas específicas correspondientes fijadas y comprometidas por el propio Gobierno. Acuerdo que el Gobierno de España ha incumplido a pesar de haber sido votado a favor por el Partido Popular. El paisano no va a estar quieto ante la actual situación de parálisis, si alguien piensa que esto era un brindis al sol y hacerse una foto se ha equivocado. Los y las Socialistas no van a dejar de luchar por hacer cumplir este pacto, no se lo perdonarían jamás. La sociedad necesita este pacto: “Os queremos vivas, ni una más”. Por todo ello y desde el Grupo Socialista del Ayuntamiento de Errenteria solicita a los demás grupos municipales el apoyo a los acuerdos de la moción.

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du Alderdi Sozialistak Kongresuan proposamen honen oinarri zen proposamena aurkeztu zuenean alde bozkatu zutela, eta orain ere mozio honen alde bozkatuko dutela. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako estatu-itun hau luze landu da eta ziurrenik ez ditu alderdi guztiak erabat asebete, ezta haiek ere. Baina tresna baliagarria izan daiteke eta ahalegina egin dute akordioetara iristeko, gai honetan akordioetara iristea guztion erantzukizuna baita. Baina tresna baliagarria izan dadin, garatu beharra dago, ezin du paper hutsean geratu, ekimenak behar dira, eta nola ez, aurrekontua. Eta ezinbestekoa da

*Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que cuando el Partido Popular presentó en el Congreso la propuesta en la que se basa la presente, votaron a favor, y ahora volverán a hacerlo. El Pacto de Estado contra la violencia hacia las mujeres se ha trabajado mucho, y probablemente no haya satisfecho del todo a todos los partidos; tampoco al nuestro. Pero puede ser una herramienta útil y se han esforzado para llegar a acuerdos, ya que es responsabilidad de todos los partidos llegar a acuerdos. Pero para que resulte una herramienta útil se debe desarrollar, no debe quedar en papel mojado, se necesitan proyectos y, como no,

aurrekontu hori ere paperean ez geratzea bere fruituak eman ditzan itun honek. EAJren ordezkariak kongresuan esan zuen moduan, emakumeen gaineko indarkeriaren aurkako borrokan inbertitzea ez da gastua, inbertsio bat da; balioetan inbertitzea da, hezkuntzan inbertitzea eta prebentzioan inbertitzea. Emakumeenganako indarkeria giza eskubideen urraketa den heinean, edozein giza eskubideren urraketa bezala, gure gizartetik ezabatu behar dugu.

presupuesto. Asimismo, también es imprescindible que dicho presupuesto no se quede en papel mojado para que el pacto de su fruto. Tal y como manifestó nuestro representante en el Congreso, invertir en la lucha contra la violencia hacia las mujeres no es un gasto, es una inversión; es invertir en valores, es invertir en educación y en prevención. En la medida en que la violencia hacia las mujeres es una violación de derechos humanos, al igual que cualquier otra violación de derechos humanos, debemos erradicarla de nuestra sociedad.

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du printzipioz ez dutela arrazoirik ikusten mozio hau ez babesteko, baina esan nahi dute eskasa iruditzen zaiela. Gaztelaniaz jarraitu du, esanez, hasteko, mozioa emakumeenganako indarkeriaz ari dela, nahiz eta indarkeria matxista ez zaien soilik emakumeei zuzentzen, baizik baita haien seme-alabei edo beste kolektibo batzuei ere, adibidez, LGTBI kolektiboari. Itunari dagokionez, indarkeria onartzen du familia-ingurunearen baitan, indarkeria matxista esparru guztietan aitortu beharrean, adibidez, lan-esparruan, eta ildo horretan, eskertuko liekete Talde Sozialistako kideei aldaketa pare bat egitea.

* Interviene la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ) manifestando en euskara que en principio no ven motivos para no apoyar esta moción pero les parece insuficiente. Continúa en castellano, manifestando que para empezar la moción habla contra la violencia a las mujeres cuando se considera que la violencia machista no va solo dirigida a las mujeres sino también a sus hijos, hijas y otros colectivos como puede ser el colectivo LGTBI. En cuanto al pacto al que se hace referencia reconoce la violencia dentro del entorno familiar cuando la violencia machista ha de reconocerse en todos los ámbitos como puede ser el ámbito laboral, y en este sentido agradecerían a los compañeros del Grupo Socialista un par de modificaciones:

Laugarren paragrafoan “emakumeentzako” hitza aldatzea “biktima guztientzako” espresioarekin; honela geratuko litzateke idatzita:

En el 4º párrafo cambiar la palabra mujer por la expresión a todas las víctimas, quedando la redacción de la siguiente manera:

Baina ezingo dugu indarkeria matxista desagerrarazteko bidean eta biktima guztientzako berariazko arretan aurrera egin.

Pero no se podrá avanzar en la erradicación de la violencia machista y en la atención específica a todas las víctimas

6. paragrafoan aldatzea “genero indarkeria” adierazpena “indarkeria matxista”rekin. Paragrafo horrek erreferentzia egiten die toki-administrazioek

En el 6º párrafo cambiar la expresión violencia de género por la de violencia machista. Este párrafo hace referencia a las políticas que se están llevando

berdintasunaren inguruan egiten dituzten politikei. Iruditzen zaie, hemen, Errenterian behintzat, borroka ez dela genero-indarkeriaren aurka soilik, baizik indarkeria matxistaren aurka, orokorrean. Itunari berari dagokionez, itunean bertan esaten denaren arabera, 200 milioi bideratu beharko lirateke 5 urtetan, baina ez zaie nahikoa iruditzen; izan ere, Kongresuan, Elkarrekin Podemos taldeak eskatu zuen urtean 200 milioi izateko. Edonola ere, Gobernua ez da betetzen ari, mozioak dioen moduan. Euskaraz jarraitu du, esanez badirela jada zazpi hilabete itun hau onartu zela, eta oraindik ez dela neurri bakar bat ere martxan jarri. Gogoratu dezagun orduz geroztik 40 biktimatik gora izan ditugula, eta kontutan hartzen baditugu azken 10 urteak, 900 biktima zenbatu ditzakegu. Gaztelaniaz jarraitu du, esanez Gobernuak hilabeteak daramatzala 200 milioi horiek Estatuaren aurrekontu orokorren mende jarrita, baina zuzenean finantzatu ahal izango lituzkeela errege-dekretu batekin (mozioan aipatzen da), urgenteak iruditzen zaizkien beste gauza batzuekin egiten duten moduan. PPren gobernuarentzat ez al da urgentea erailketekin eta indarkeria matxistarekin eta hori inguratzen duen guztiarekin amaitzea? Azpimarratu nahi dute Aurrekontu Orokorretan ageri direla ministerioaren hainbat partidatarako konprometitu ziren 80 milioiak, baina benetan tranpa bat dela, ez dituzte 80 milioi jarri, Alderdi Popularraren gobernuak lehendik zegoenari erantsi dio soilik 80 milioi horietara iristeko behar zena. Aurrekontu Orokorretan ez dira ageri autonomia-erkidegoetarako eta udaletarako ziren 120 milioiak; esan dute Madrilen finantzazio autonomikorako uzten dutela, baina benetan uste dute bide zuzena izan beharko lukeela eta ez Alderdi Popularraren gobernuaren eta EAJren gobernuaren arteko biko negoziazio bat, Euskadiren kasuan, ituna bete behar delako edozeinek gobernatzen duela ere. Ez dute ikusten Rajoyren gobernuak baliabideak

en torno a la igualdad desde las administraciones locales, creen que al menos aquí en Errenteria la lucha no es solo contra la violencia de género es una lucha contra la violencia machista en general. En cuanto al propio pacto en si, según lo que dice el propio pacto, se deberían de destinar 200 millones en cinco años, esto les parece insuficiente, de hecho en el Congreso el Grupo Unidos Podemos solicitó en su dia que fueran 200 al año. En cualquier caso el Gobierno no está cumpliendo como indica la moción. Continúa en euskera, manifestando que hace siete meses que se aprobó el pacto y todavía no se ha puesto en marcha ni una medida. Hay que recordar que el número de víctimas ha ascendido a más de 40 y si tenemos en cuenta los últimos diez años se registran hasta 900 víctimas. Continúa en castellano, manifestando que el Gobierno lleva meses supeditando estos 200 millones a los Presupuestos Generales del Estado pero podría financiarlos directamente con un Real Decreto (ya se menciona en la moción) como hacen con otras cosas que consideran urgentes. ¿A caso para el gobierno del PP no es urgente acabar con los asesinatos y la violencia machista y todo lo que ello abarca?. Quieren remarcar que en los Presupuestos Generales aparecen los 80 millones que se habían comprometido para varias partidas del ministerio pero en realidad es una trampa no son 80 millones lo acordado sino que lo que ha hecho el gobierno del Partido Popular es aumentar lo que ya había hasta alcanzar esos 80 millones. En los Presupuestos Generales del Estado no aparecen además 120 millones que iban para las Comunidades Autónomas y para los Ayuntamientos, dicen desde Madrid que lo dejan para la financión autonómica, pero en realidad creen que debería ser vía directa y no supeditarlo a una negociación bilateral entre el Gobierno del Partido Popular y el Gobierno del PNV en el caso de Euskadi porque el pacto tiene que cumplirse

jartzen dituenik gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politiketarako, ez dute arretarik jartzen ea enpresek badituzten eta betetzen dituzten berdintasun-planak, nahiz eta nahitaezkoak izan. Emakumearen Institututik edo ministeriotik bertatik ematen den pauso oro alferrikakoa da edo ez da gardena. Emakumeak kalera atera zirenean martxoaren 8an eskubide osoko herritartasuna eskatzera, Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna ministerioaren buru den Dolors Montserratek ez zuen maila eman. Erakunde feministek berriz ere kontzentrazio bat deitu zuten apirilaren 25erako, Diputatuen Kongresuaren aurrean, eta estatu osoko mobilizazioak iragarri zituzten maiatzaren 16rako; eta, nola ez, bere taldeak babestuko ditu. Bat egiten dute errebindikazioekin eta eskatzen dute aurrekontuetako partidak gauzatzeko eta ez daitezen gera argazkirako asmo hutsetan. Azkenik, gustatuko litzaieke Euzko Alderdi Jeltzaleari adieraztea baldintza hauetan Euskadiko emakumeek ezingo luketela inolaz ere ulertu talde horrek Rajoy jaunaren aurrekontuak babesterik. Kongresuan ordezkaritza duten talde guztiei gogorarazi die ostegunean bertan aukera bikaina izango dutela adierazteko ados dauden ala ez batere sozialak ez diren eta pertsona guztion bizitza duina izan dadin bermatzera hain baliabide gutxi bideratzen dituzten aurrekontu orokor horiekin.

gobierne quien gobierne. No se ven recursos para las políticas de igualdad entre hombres y mujeres desde el Gobierno de Rajoy, no se pone atención en que las empresas tengan y cumplan unos planes de igualdad que son obligatorios. Cada paso que se da desde el Instituto de la mujer o el propio ministerio es un paso en falso o carente de transparencia. Mientras las mujeres salen a la calle el 8 de marzo a demandar una ciudadanía de pleno derecho la ministra Dolors Montserrat que está al frente del Ministerio de Sanidad , Servicios Sociales e Igualdad, no está a la altura. Las organizaciones feministas vuelven a convocar a una concentración primero el 25 de abril frente al Congreso de los Diputados y anuncian nuevas movilizaciones a nivel nacional para el 16 de mayo que, sin duda, apoyaran. Se suman a sus reivindicaciones y exigen además, que las Partidas Presupuestarias se ejecuten y que no se queden en meras intenciones para que la foto salga bonita. Por último les gustaría trasladar al Partido Nacionalista Vasco que en estas condiciones las mujeres de Euskadi no podrían entender el apoyo a los presupuestos del Sr. Rajoy. A todos los Grupos representados en el Congreso recordarles que este mismo jueves se da la ocasión perfecta para mostrar su acuerdo o su desacuerdo con estos Presupuestos Generales, tan poco sociales y que tan pocos recursos destinan a garantizar la vida digna de todas las personas.

* Lopez de Echezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du buelta asko eman dizkiotela mozioari, eta azkenean erabaki dutela babestea, baldin eta akordioak bakarrik bozkatzen badira, eta ez aurretik dagoen testua. Gero PSEek esango du egoki iruditzen zaion ala ez. Testuaren hasieran idatzita dauden hainbat gauzarekin ados ez egoteaz gain, batez ere ez da aipatzen EHBilduk talde propiorik ez izan arren eta ez

* Interviene en euskera la Sra. Lopez de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu*)* manifestando que le han dado muchas vueltas a la moción, y que al final han decidido apoyarla, con la condición de que sólo se voten los acuerdos, no el texto que los precede. Luego el PSE manifestará si le parece bien o no. Al margen de no estar de acuerdo con algunas cosas que se dicen al principio del texto, sobre todo no se menciona que EHBildu, a pesar de no tener grupo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egon berdintasuneko batzordean itunaren inguruko negoziazioa egin zenean, ondoren landu zenean, abstenitu egin zela. Hartara, badute beren baitan halako desadostasun bat, kosta egiten zaie ulertzea itunak berak zer helburu dituen eta benetan eraginkorra izaten ari ote den. Horren inguruan hitz egingo du, nahiz eta egia izan hemen dirua eskatzen dela; eta ez diote ezetz esango diru-eskaera bati, nahiz eta konfiantza txikia izan diru hori etorriko denean. Gainera, kopuruak osotasunean ikusten direnean asko dirudite, baina gero aztertzean benetan zer baliabide erreal planteatzen den autonomia-erkidego bakoitzarentzat eta udal bakoitzarentzat, kuestionagarria izan daiteke kopuru horiek zer puntutaraino diren esanguratsuak. Hori esanda, aipatu behar da ituna ez dutela oso ondo ulertzen, kasu honetan, agian bai balio sinbolikoa izan dezakeen heinean, baina ez hainbeste gauzak gauzatze aldera, izan ere, legeak eta arauak erabiltzen dituzte administrazioan gauzak egiteko. Eta izan, lege batzuk badaude, eta horiek aurrera eraman ahala segur aski eraginkorragoak izango lirateke politikak, eta itun honetan hainbat neurri eta hainbat gauza jasotzen badira ere, ez dute aurrerapauso nabarmenik ikusten. Momentu desberdinetan aipatu da nabarmentzekoena izan daitekeela emakumeek denuntziarik jartzen ez badute ere onartzen dela biolentzia jasaten dutela eta biktima direla. Baina gaur egun, gainditutа beharko genuke hainbeste urtetako bide hori, ulertzen zuena denuntzia zela bide bakarra emakumeentzat beren biolentzia egoerari aurre egiteko, errealitate hori non denuntzia jarri ez duen emakumea ezin den biktimatzat hartu. Hori atzerakoia iruditzen zaio. Orduan, hori bada suposatzen duen aurrerapauso bakarra... Dirua bada, etor bedi, nahiz eta berak zalantzak dituen iritsiko den. Gurera etorriaz, garrantzitsuena da Euskal Autonomia Erkidegoan indarkeriari aurre egiteko gure lege propioa

propio y no estar en la comisión de igualdad cuando se llevó a cabo la negociación en relación al pacto, posteriormente se abstuvo. Así, se encuentran en una especie de contradicción, les cuesta entender qué objetivos tiene el pacto y si realmente está resultando efectivo. Hablará de esto, aunque en realidad aquí se solicite dinero; y no le dirán que no a una petición de dinero, aunque no tengan mucha confianza en que vaya a llegar ese dinero. Además, las cantidades en total parecen importantes, pero cuando se analizan los recursos reales que se plantean para cada comunidad autónoma y para cada ayuntamiento, resulta cuestionable hasta qué punto son significativos dichos importes. Dicho esto, cabe mencionar que no entienden muy bien el pacto, pero en este caso puede tener un valor simbólico, pero no tanto para realizar acciones, ya que en la administración se valen de leyes y normas para hacer cosas. Y existen leyes, y a medida que se vayan desarrollando dichas leyes las políticas probablemente serían más efectivas, y aunque en el pacto se recojan diversas medidas y acciones, no ven grandes avances. En varios momentos se ha mencionado que cabría destacar que aunque las mujeres no denuncien se reconoce que sufren violencia y su condición de víctima. Pero actualmente deberíamos haber superado ese pensamiento que viene de hace años, cuando se entendía que la denuncia era la única vía para las mujeres para hacer frente a su situación de violencia, ya deberíamos haber superado esa realidad en la que la mujer que no denuncia no se considera víctima. Le parece una idea arcaica. Por lo tanto, si ese es el único avance que supone... Si se trata de dinero, bienvenido sea, aunque ella duda de que llegue. Volviendo a lo nuestro, lo más importante es que en la Comunidad Autónoma Vasca dispongamos de una ley propia para hacer frente a la violencia, y emplaza a todos los grupos políticos aquí presentes a que se



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

edukitzea, eta enplazatzen ditu hemen dauden talde politiko guztiak hori lortu nahi izatera. Eztabaida luzea izan dezatela, parlamentuan landu dezatela lege propio bat, aukera emango diena benetan politika eraginkorragoak egiteko emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko.

unan a esa línea. Que lo debatan largo y tendido, que trabajen una ley propia en el parlamento, una ley que les permita realmente llevar a cabo políticas más eficaces para hacer frente a la violencia hacia las mujeres.

* Ruiz jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) euskaraz adierazi du erantzungo diola IrabaziZek eta Bilduk egindako eskaerari, onartzen dituzte aldaketak, baita Bilduk eskatutako aldaketa ere: kenduko dute azalpen-zatia, hartara, IrabaziZen eskaera erori egiten da, baina prest daude guztien artean ateratzeko aurrera mozio hori. Halaber, esan nahi du itun hau ez zela bakarrik diru bat lortzeko, balioan jarri beharko litzateke, baita ere, aldaketa bat egon dela eta jada biktimak ez direla hildako edo erasotutako emakumeak soilik, baita haien seme-alabak ere. Eta iruditzen zaio aldaketa hori ona izango dela eta eskertzen dute gustura eta merezita emandako aldeko bozka.

*Interviene en euskera el Sr. Ruiz (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) respondiendo a la petición de IrabaziZ y Bildu, aceptan los cambios propuestos, así como la modificación propuesta por Bildu: eliminan la parte expositiva, por lo que la petición de IrabaziZ decae, pero muestran su disposición a sacar adelante la moción entre todos los partidos. Asimismo, quiere decir con este pacto no se trata únicamente de conseguir dinero, también debería ponerse en valor que se haya dado un cambio y que las víctimas ya no sean únicamente las mujeres muertas o agredidas, sino también sus hijos e hijas. Y les parece que este cambio será bueno y lo agradecen. Gustosamente y merecidamente votarán a favor.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Bozkatu dute, Lopez de Echezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBilduk) eskatuta, soilik Alderdi Sozialistak genero indarkeriaren aurkako Estatu Itunean aurreikusitako neurriak garatzeko aurrekontuaren inguruan Espainiako Gobernuak hartu duen konpromisoari buruz aurkeztutako mozioaren xedapen-zatia.

Sometida a votación a instancia de la Sra. Lopez de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu*)* exclusivamente la parte dispositiva de la moción presentada por el Grupo Socialista relativa al presupuesto comprometido por el Gobierno de España para desarrollo de las medidas contempladas en el Pacto de Estado contra la violencia de genero.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**E R A B A K I A**

Hau onartzea:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, autonomia-erkidego eta udalentzat gordetako eskumen berri edo zabalduetarako, transferentzia bidez bidera ditzan urtean 20 milioi euro gehiago udalentzat eta 100 milioi euro autonomia-erkidegoentzat, Itunaren erabakian adierazitakoaren arabera, ezartzen baita Estatuko Aurrekontu orokorrek bideratuko dituztela, udalei transferentzia eginda, urtean 20 milioi euro gehiago datozen bost ekitaldietan.

2.- Udalbatzaren erabaki honen berri ematea Espainiako gobernuko presidenteari; Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroari, eta Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei.

**8. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:05
zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut autonomia-erkidegoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

**A C U E R D A**

Aprobar lo siguiente:

1. Instar al Gobierno de España a que en los Presupuestos Generales del Estado, para las nuevas o ampliadas competencias reservadas a las Comunidades Autónomas y al los Ayuntamientos, se destinen, vía transferencias un incremento anual de 20 millones de euros a los Ayuntamientos y 100 millones de euros destinados a las Comunidades Autónomas, tal como figura en el acuerdo del Pacto que dice textualmente: “Los Presupuestos Generales del Estado, destinarán, vía transferencia a los Ayuntamientos, un incremento anual de 20 millones de euros durante los próximos cinco ejercicios”.

2. Dar traslado de este acuerdo Plenario al Presidente del Gobierno de España, a la Ministra de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y al conjunto de los Grupos Parlamentarios en el Congreso de los Diputados.

**8. Ruegos y Preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

----------

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 19:05 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net